

LANAREN EKONOMIA IKASTAROA 1. GAIA

OTAZUA GARMENDIA, GARIKOITZ

1. GAIA

LAN ANALISIRAKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK

1. Lanaren kontzeptua

Lanak zerikusia du ahalegin fisiko edo mentala behar duten eta helburu gisa ondasunak eta zerbitzuak sortzea edo giza beharrak asebetetzea dituzten zeregin guztiekin. Lana ordaindutakoa (enplegu gisa ezagutzen duguna) edo ordaindu gabea izan daiteke Ordaindutako lanaren barruan, badira soldatuko langileak (besteren konturakoak), autonomoak (norbere konturakoak) eta kooperatibetako lana.

1. taula Lan-moduen elementu bereizleak

	Merkataritza-lana = Enplegua Ordaindutakoa			Ez merkataritzako lana Ugalketa-lana Ordainik gabea	
	Soldatuko langilea	Autonomoa	Kooperatibetan	Ugalketa-lana	Lan boluntarioa
Printzipio arautzaileak	Merkatua Norberaren interesa	Merkatua Norberaren interesa	Merkatua Erakundearen interesa	Familia Elkarrekikotasuna	Komunitatea Elkarrekikotasuna Elkartasuna
Produktuaz jabetzea	Enpresaburuaren mozkinak Langilearen soldata	Langileak bere lanaren produktua saltzen du	Langilearen soldata eta mozkinetan parte-hartzea	Familia Komunitatea	Komunitatea
Ekoizpen-baliabideen jabetza	Enpresaburuak	Langilea	Langilea	Familia	Definitu gabe

Iturria: egileak sortua, hurrengo oinarriarekin: Bayuls, J. eta Cano, E. (2005): *Economía laboral i polítiques d'ocupacio*. Universitat de València, or.24

Ordainik gabeko lanaren barruan daude etxean egindako lana (etxeko lana eta mendeko pertsonen zaintza) eta lan boluntarioa (irabazi-asmorik gabeko erakundeetan egiten dena). Ordainik gabeko bi lan-mota hauen artean, etxeetan egiten dena bereziki garrantzitsua da jarduera ekonomikoaren garapenerako, hau da, ordaindutako lana burutu ahal izateko. Hauek dira lan horren ezaugarriak:


- Ez du soldata bidezko ordainik jasotzen eta ez du gizarte-eskubiderik ematen (pentsioak, langabeziako prestazioak, etab.).
- Batik bat emakumeek burutzen dute.

- Ikusezina da, izan ere, merkatutik kanpo egotean, ez da kontuan hartzen BPGd-an¹.
- Lan honen helburua da lan-indarra erreproduzitzea, hau da, pertsonen bitzta mantentzea ekoizpen-sistemak eskulana izan dezan.

Emakumeek etxeko lanetan jartzen duten ahalegin handiak emakumeen lan-merkatuko parte-hartzea baldintzatzen du. Jarduera- eta enplegu-tasa txikiagoak dakartza, bai eta denborazkotasun eta enpleguaren partzialtasun handiagoak ere. Horrek guztiak errenta-maila beheratzen du eta gure gizarteak bereizten dituzten genero-desparekotasun handiak sortzen ditu.

Lan oro enplegu bat izan ez arren, ekonomiaren diziplinetan eta, beraz, lan-ekonomian, lana enpleguarekin identifikatzen da. Gainerako lan-moduak ez dira aztertzen ez eta lan gisa aitortzen, ez daudelako merkataritzaren alorrean. Lanaren zati bat bakarrik aztertzen ari gara. Ekonomiaren korrante feministen barruan, lana iceberg handi baten moduan aurkezten da, non ordaindutako lana icebergaren zati ikusgarria den eta urpean geratzen den zatia etxeko lanek eta zaintzek osatzen duten. Urpeko zati hori da, hain zuzen ere, soldaten sorrera, mozkinak, gainerako errentak eta BPGd-a eusten dituen.

1. irudia. Ekonomiaren merkataritzako eta ez merkataritzako alorrak



Iturria: jabari publikoko irudia. <https://pixabay.com/es/iceberg-el-agua-azul-oc%C3%A9ano-hielo-1421411/>

Hala ere, gaur egun, badira ikuspegi alternatiboak ekonomiaren alorra zabaltzeko eta ekoizpen-jarduerak ez diren bestelako jarduerak ere kontuan hartzeko beharra aldarrikatzen dutenak, besteak beste:

- Etxeetan burutzen den lana (etxeko lanak eta zaintzak).
- Familia- eta harreman-jarduerak.

¹ Eustaten moduko zenbait estatistika-institutuk Etxeko Lanaren Kontu Satellite izeneko eragiketa estatistikoa burutzen dute. Bertan kalkulatu da etxeetan ekoiztutakoak BPGd-an duen pisua. BPGd-aren % 33 hartzen du (2013).

- Kultura-, hezkuntza- eta prestakuntza-jarduerak.
- Jarduera politikoak eta sindikalak.

Enpleguaz gain, jarduera guzti hauek aitortu eta aintzat hartzen badira, irtenbide bat izan liteke gure ekonomiek azken hamarkadetan sufritu duten enplegu-eskasiaren aurrean. Alderdi hauek aurrerago jorratuko ditugu, zehazki, 6. gaian, lan-merkatuaren inguruko politiken gaian.

2. Lan-merkatuaren izaera berezia

Ekonomiaren korrante ortodoxoetatik, lan-merkatua merkatu arrunt baten moduan aztertzen da. Hala ere, ikastaro honen eta baita erabiliko ditugun laguntza-testu nagusien (Recio, 1997 eta Ruesga, 2014) ikuspegitik, lan-merkatua merkatu desberdina da. Lan-merkatuak izaera berezia duela uste da, alegia. Horren arrazoiak anitzak dira:

Lehenik, lanak ondasun eta zerbitzuen ekoizpen-prozesuetan hartzen duen tokiak hainbat alderdi nagusi baldintzatzen dituelako, hala nola harreman ekonomikoak nolakoak diren, gizartea nolako den, sortutako produktua nola banatzen den, zeintzuk diren botere gehien duten taldeak, etab. Lanak ekoizpenean parte hartzeko duen modua aldatuz joan da garaia araberara, herrialdeen araberara eta egoeren araberara: esklabutza, feudalismoa, ordainpeko lana, lan autonomia, kooperatibetako lana, etab., honela hainbat gizarte-mota sortuta.

Bigarrenik, trukaturako salgaia, hau da, lana, salgai berezia delako (Ruesga, 2014:21):

- Ezinbestez pertsoneri lotuta dago eta egoera historikoen, kulturalen, sozialen, ekonomikoen eta demografikoen mendekoa da. Lan-indarraren produkzioa/erreprodukzioa baldintza hauen arabera da. Lan-indarra lan eraginkor bihurtzea (hau da, ekoizteko prest dagoena) lan-harremanen esparruaren eta burututako inbertsioen mende dago (inbertsioak giza kapitalean eta $I+G+b-an$).
- Lana ez da homogenea, izan ere, pertsonen kualifikazio, jokabide eta gaitasun desberdinak dituzte eta guztiek ezin dituzte lan berak burutu, beraz, lan-merkatuaren segmentuak edo lan-merkatu desberdinak izan behar dira kontuan.
- Lan-indarra toki jakinetan kokatuta dago eta mugikortasun-mugak ditu, ezinbestez pertsoneri lotuta baitago. Mugikortasun funtzional eta geografikoaren inguruko horiek faktore oso anitzen emaitza dira, esaterako eskulanaren kualifikazioak, etxebizitzaren merkatua, ohitura sozial eta kulturalak, dauden garraio-azpiegiturak, etab.
- Bere prezioa aldi berean da ekoizpen-kostu eta errenta-iturri biztanleriaren gehiengoarentzat, eta horregatik dauka beheranzko zurruntasuna.
- Lanak funtzio ekonomikoak izateaz gain, bestelako funtzioak ere baditu: gizarteratze-mekanismoa da, autoestimuturria, gizarte-harremanetarako iturria, ospe- eta nortasun-iturria, denboraren egituratzailea da, sormenerako sarbidea ahalbidetzen du, etab.

Hirugarrenik, bere horretan atributurik ez duen merkatua delako (Ruesga, 2014:26-27):

- ✓ Informazioa ez da gardena eta ez dago eragile guztien eskura berdintasun-baldintzetan. Lan bila ari diren pertsonen ez dute beti izaten dauden lanpostu librean eta haietzako potentzialki egokiak diren lanpostu librean

inguruko informazio guztia. Enplegataileek, beren aldetik, ez dituzte ezagutzen ere lan-eskaintza osoa edota eskaintza horren ezaugarriak.

- ✓ Prezioen eta kantitateen malgutasuna ez da betetzen. Aurrerago ikusiko dugun moduan, lanaren prezioa (soldata) eta kontratatutako eskulanaren kantitatea baldintza demografikoen, kulturalen eta instituzionalen araberakoa da. Horrek beheranzko zurruntasun garrantzitsuak dakartza aldagai hauentzat.
- ✓ Lan-eskaintzaren eta -eskariaren arteko harremana (langilea eta enplegatailea) asimetrikoa da eta, ondorioz, alderdi bakoitzaren boterea arautzen duen esparru instituzional konplexu bat dago.

Lan-indarraren trukea ez da merkatuaren eta erosleen eta saltzaileen arteko negoziazioaren bitartez burutzen, baizik eta alderdi bakoitzaren boterea baldintzatu eta definitzen duten harreman sozial eta instituzionalek ostatutako ingurune konplexu baten bitartez. Horregatik badira zenbait ikuspegi lan-merkatua existitzen ez dela defendatzen dutenak eta lan-harremanez aritzea nahiago dutenak. Aipagarria da ere Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) berak, Filadelfiako Adierazpenean (1944), adierazi zuela giza lana ez dela salgai bat, beraz, ez litzateke zuzena izango lan-merkatuaz aritzea.

Bestalde, esan daiteke lan-merkatua bere funtzionamenduaren eraginkortasuna baldintzatu duten hainbat arau eta erregulazioen esparru barruan dagoela. Horrek ez du esan nahi, berez, arau horiek funtzionamendurako oztopoa direnik, jokorako arau batzuk beharrezkoak baitira. Lan-harremanen sistemaren arautzeak izaera funtzionala duela ulertzen da sistema ekonomiko kapitalistaren garapenari dagokionez. Horren arrazoia da arautze horrek enplegatailearen eta langilearen artean beti latente dauden gatazkak barnean uztea ahalbidetzen duela, gatazka horiek sistema bera arriskuan jartzea ekidite aldera. Ikuspuntu hauetatik, Estatuaren eginkizuna da gatazka horiek adierazteko sistema ekonomikoarentzat funtzionalak diren kanalak bermatzea, lan-arloko legeak eta araudiak direla medio (Ruesga, 2014:28).


3. Lan-merkatuaren funtzionamendua

3.1 Lan-eskaintza

Ekonomia baten lan-eskaintza eraginkorra lan egiteko prest dauden pertsonen kopuruak eta lan egiteko prest dauden orduen kopuruak osatzen dute. Orokorrean, lan-eskaintza gorakorra dela ulertzen da, hau da, soldata-maila geroz eta handiagoa izan, orduan eta lan-ordu gehiago egiteko prest egoten dira langileak. Hala ere, soldata-maila jakin batetik aurrera, pertsonak gutxiago lan egin eta aisialdi gehiago nahi izatea gerta liteke. Orduan, eskaintzaren kurba beherakor bihurtu liteke². Gainera, kontuan hartu behar da beti badela gutxieneko soldata bat eta hortik behera pertsonak ez daudela lan egiteko prest. Soldata horri erreserbako soldata esaten zaio. Horrek esan nahi du eskaintza ez dela abiatuko koordinatuen jatorritik.

² Eskaintzako lan-orduen inguruko banakako jokabideak lanaren eta aisialdiaren arteko banaketa librearen eta dagoen soldata-mailaren araberakoak dira. Soldatan gertatzen diren aldaketek ordezkapen-efektu bat (OE) eta errenta-efektu bat (EE) izaten dute eta efektu horiek kontrako erabakiak dakartzate soldataren aldaketen aurrean eskaintzako lan-kantitateari dagokionez.

Maila agregatuan, ekonomia baten biztanleria aktiboa aintzat hartzen dugunean, eskaintza agregatua gorakorra da, hau da, soldata-igoerek biztanleria aktiboa areagotzen dute.



Iturria: Egileak sortua

Ekonomia baten eskaintza agregatua ez da bakarrik banakoen erabakien batura. Aldiz, lan-merkatuaren kanpoko instituzio-egitura baten barne dago eta instituzio horiek banakoen erabakiak baldintzatzen dituzte, pertsonak egituratu eta sailkatzen dituzte eta egoera desberdinetan ipintzen dituzte. Eskaintza agregatua baldintzatzen dituzten alderdien artean, honakoak aipatuko ditugu:

A. Alderdi instituzionalak

Funtsean, dagoen lanaren erregulazioan datza, hainbat alderdiri dagokienez:

- Lan-merkatura sartzeko adina eta erretiro-adina.
- Ezarritako gehienezko lanaldia eta bere egitura.
- Gutxieneko soldata eta batezbesteko diru-sarrerekin duen erlazioa.

B. Dagoen gizarte-babeserako sistema

Lan-jarduerarekin loturarik ez duten gutxieneko errentak, ordaindutakoaren araberakoak ez diren pentsioak edo langabezia-sorospenak egoteak, bai eta horiek eskuratzeko baldintzek ere, pertsonen parte-hartzea baldintzatzen du lan-merkatuan. Azken hamarkadetan, asko azpimarratu izan da prestazio hauek enplegu-bilaketari pizgarriak kentzeko duten arriskua, erreserbako soldata goratu egiten baitute. Hain da horrela, non langabezia-sorospenak behertzea eta sorospenak jasotzeko baldintzak zailtzea gomendatzera iritsi garen, langabezia-tasak murrizte aldera. Efektu horiek gerta litezke prestazioak altuak balira eta, aldi berean, lan-merkatuan eskura daitezkeen soldatak baxuak balira. Dena den, gehienetan sorospenen zenbatekoa ez da altua eta, gainera, langabe askok ez dute sorospena jasotzeko eskubiderik. Beraz, sorospenak behertzeko eta sorospenak eskuratzeko baldintzak zailtzeko neurriak gastua murrizteko neurriak dira batez ere.

C. Hezkuntza- eta prestakuntza-sistema

Hezkuntza eta prestakuntza lan-faktorearen heterogenotasunaren elementuak dira. Ekonomia baten langabezia-tasaren azalpenaren zati bat izan liteke eskulanaren kualifikazioen eta enpresen-beharren artean dagoen adostasunik eza.

Hezkuntzak, produktibitatea areagotzeko duen balioaz gain, kanpoko efektu garrantzitsuak ditu gizarte-prozesu guztietan, humanizazioa, ezagueraren hedapena eta bizikidetzaren hobekuntza ahalbidetzen baititu.

Prestakuntzak epe laburreragoko izaera du: produktibitatea areagotzen du, lan-eskariaren eta -eskaintzaren arteko aldea murrizten du eta langabeziaren arazoa konpontzeko helburu nagusia du. Prestakuntza arautua edo lanpostuan bertan burutzen dena izan daiteke.

Hezkuntzak eta prestakuntzak lan-merkatuan duten paperaren inguruko iritzi ugari daude eta hurrengo taulan laburbildu ditugu:

2. taula Hezkuntzaren papera lan-merkatuan

Giza Kapitalaren teoria (Gary Becker)	Seinaleen edo iragazkiaren teoria	Eskola erradikala
<p>Beren hezkuntzan gehiago inbertitu duten pertsonak produktiboagoak dira eta horregatik eskuratuko dituzte soldata altuagoak.</p> <p>Pertsonak gehiago edo gutxiago ikastea erabakitzen dute ikasketekin eskuratuko dituztela uste duten abantailen arabera eta ikasketa horien aukera-kostuaren arabera. Alderdi honek kritikak jaso ditu ikasteko erabakia gizarte-egoeren eraginaren mende baitago.</p> <p>Teoria honek hezkuntzaren alorreko inbertsio publikoaren bidezko tasuna zabaltzen du, horrek produktibitatea areagotzen baitu.</p>	<p>Hezkuntzak ez du laneko produktibitatea areagotzen; aldiz, hezkuntzaren eginkizuna hainbat hautapen-iragazki sortzea da. Gehien ikasten duten pertsonak azkarrenak, prestatuenak eta motibatuenak dira. Horregatik, produktiboagoak izango dira. Baina ez da hezkuntza pertsona horiek produktiboago egiten dituen.</p> <p>Enplegatzaileak hezkuntza-maila erabiltzen du gaitasun gehien dituzten pertsonak hautatzeko seinale gisa, honela informazio ez perfektuaren arazoa konponduta.</p>	<p>Soldatak ez dira banakako produktibitatearen arabekoak, baizik eta hierarkia kapitalistan hartzen den postuaren arabekoa. Hierarkia hori beharrezkoa da kapitalismoari berezkoa zaion gizarte-gatazka kudeatzeko (langileak banandu eta kontrolatuta).</p> <p>Hezkuntza-sistemek desparekotasunak areagotzeko eta klase menderatzaileen interesak babesteko balio dute. Sistema hauen edukiek status quo-a erreproduzitzeko joera dute: indibidualismoa, lehiakortasuna eta obediencia akritikoa, hori da beren eginkizuna.</p>

Iturria: egileak sortua, Recio, 1997: or. 106-113 oinarri hartuta.

D. Herrialdearen garapen sozioekonomikoaren maila

Eragina du lan-eskaintzaren bolumenean eta dinamikan. Aipagarriak diren bi alderdi garrantzitsu:

- a. Hezkuntza-aukera gutxi badaude, gazteak lehenago sartzen dira lan-merkatura. Hori da garapen-maila txikia eta 25 urtetik beherako gazteen jarduera-tasa altuak dituzten herrialdeetan gertatze denaren zati bat.
- b. Emakumeak lan-merkatura sartu badira, lan-eskaintza handiagoa izango da. Horrek honakoekin du lotura:
 - o Genero-berdintasuna sustatzen duten balio sozialak eta kulturalak.
 - o Emakumeen eta gizonen arteko zaintza-lanen berdintasunezko banaketa edo, halakorik ezean, erantzukidetasun hori sustatzen duten eta zerbitzu publikoak ematen dituzten politika publikoak.

E. Demografia

- a. Biztanleriaren hazkunde begetatiboaren alderdiek ekonomia batek etapa bakoitzean duen lan-eskaintza baldintzatzen dute.
- b. Migrazioak. Kontuan hartu behar da migrazio-motak aldatu egin direla. Lehen, landa-inguruneetatik hirira gertatzen ziren eta orain nazioartekoak dira gehienak. Bestalde, migrazioek onurak dakartzate, baina baita kostuak ere, bai igorlearentzat bai hartzailearentzat ere.

2. taula Migrazio-prozesuen abantailak eta desabantailak

	Herrialde igorlea	Herrialde hartzailea
Abantailak	<ul style="list-style-type: none"> • Langabezia murrizten du • Dibisen sarrera • Itzultzen direnen ezaguera-ekarpena 	<ul style="list-style-type: none"> • Langabezia murrizten du etorkinek enplegu osagarriak hartzen badituzte • Aurrezte prestakuntza-kostuetan
Kostuak	<ul style="list-style-type: none"> • Eskulan dinamikoenaren galera • Hezkuntza- eta prestakuntza-kostuak ez dira berreskuratzen • Bizimoduen aldaketa 	<ul style="list-style-type: none"> • Langabezia areagotzen da etorkinek ordeztu enpleguak hartzen badituzte • Dibisen irteera • Ekipamendu-kostuak eta kultura-asimilaziorako kostuak

Iturria: egileak sortua, Recio, 1997: or. 116 oinarri hartuta.

F. Biztanleriaren itxaropenak enplegu-bilaketari dagokionez

Egoera ekonomikoa negatiboa bada, zenbait kolektibo biztanleria aktibotik ateratzea gerta liteke. Adibidez, beren ikasketak luzatzen dituzten gazteak.

3.2 Lan-eskaria


Lan-eskariaren zati handiena ondasunak eta zerbitzuak sortzeko eskulana behar duten enpresetatik dator. Gainera, sektore publikoa ere lan-eskariaren iturri da, zerbitzu publikoak emateko langileak behar baititu. Eskulan-eskaria egon dadin, beraz, ekoizpena behar da.

Lan-eskariaren beste faktore garrantzitsu bat erabilitako ekoizpen-teknologia da. Eskulan asko aurrezten duten teknologiak erabiltzen dituzten eta/edo oso kapital-intentsiboak diren ekoizpen-prozesuetan lanpostuen sorrera txikiagoa izaten da. Aldiz, oso eskulan-intentsiboak diren sektoreak badira, esaterako, zerbitzu pertsonalak, langileen beharra handiagoa izaten da.

Alderdi instituzionalek ere baldintzatzen dute enplegatzaileen aldetiko eskulan-eskaria. Adibidez, kontratazioen eta kaleratzeen inguruko araudia, lan-harremanen malgutasuna, enpresa berrien sustapenerako pizgarriak eskaintzen dituzten lan-politikak, etab.

Azkenik, aipatu beharra dago etxeko lanen eta mendeko pertsonen zaintza-lanen merkantilizazio-maila ere lan-eskariaren faktoreetako bat dela. Lan horiek etxetik kanpo burutzen badira edo, etxeetan, lan horiek egiteko langileak kontratatzen badira, enplegu bihurtzen dira, lanpostu berriak izango dira alegia.

Alderdi hauek guztiak ikusita, enpresek lan-eskariarekiko duten jokabidea soldata-mailarekin ere lotuta dago. Puntu honetan, teoria ekonomiko neoklasikoaren eragina erabakigarria da. Merkatuetako lehia perfektu baten testuinguruan, lan-eskariaren analisia lanaren eta kapitalaren arteko konbinazio posibleen inguruan burutzen da, hauen prezio erlatiboen arabera. Honela azaltzen da soldaten igoera batek enpresen aldetiko lan-eskaria murriztea. Hau da, lanaren faktorea garestitu egiten bada kapitalarekin alderatuta, enpresek eskulana aurrezteko teknikak erabili beharko dituzte. Eta, aldiz, soldaten beherakada batek eskulan-intentsiboagoak diren tekniken erabilera ekarriko luke eta, beraz, lan-eskariaren areagotzea. Argitu behar da planteamendu mota honek 3. gaian jorratuko diren kritika ugari jaso dituela.



Iturria: egileak sortua.

3.3 Soldata

Soldata da ekonomiaren preziorik garrantzitsuenetako bat, izan ere, soldaten zenbatekoak ondorio nabarmenak ditu bizitza ekonomiko eta sozialean. Magnitude konplexua da, hiru dimentsio baititu:

a) Soldata ekoizpen-prozesuko kostu bat eta merkatuko doikuntza-mekanismo bat da

Teoria neoklasikoak duen lan-merkatuaren ikuspegia da. Soldatek lan-eskaintza eta -eskaria orekatzeko moduko malgutasun nahikoa izan beharko luketela ulertzen da. Egoera horretan, soldatek gora egingo lukete enpresak haien artean lehiatzen badira eskulana eskuratzeko eta behera egingo lukete lan egiteko eskuragarri dagoen lan-eskaintza eskaria baino handiagoa denean, hau da, langabezia dagoenean.

Gainera, soldata ekoizpen-kostua dela aintzat hartuta, enpresak mozkin-maila egokia lortzeko moduko maila batean egon beharko litzateke soldata. Bestalde, soldaten bilakaerak eragina du produktuen amaierako prezioan. Zentzu horretan, soldata-igoerek kostuen inflazio-prozesuak sor ditzakete produktibitatearen areagotzeekin batera ez badoaz.

b) Soldata gizarte-kostu eta erreprodukziorako oinarri gisa

Abiapuntua da soldata biztanleriaren gehiengoaren errenta-iturria dela. Korrante klasikoek, marxistek, instituzionalistek eta postkeynestarrek uste dute ekoizpena ezin dela lanik gabe existitu, eta lana egon dadin beharrezkoa dela pertsonen bizi-maila jakin bat bermatzea. Horregatik, soldatak ezin dira etengabe aldatu, horrek pertsonen bizi-baldintzak etengabe aldatzea ekarriko lukeelako.

Planteamendu honen ikuspuntutik, soldatak marjinalki bakarrik alda daitezke. Soldata eskulanaren iraupena bermatzen duen ordaina izateak azaltzen du, neurri batean, soldaten beheranzko zurruntasuna. Iraupen fisikoaz soilik ari ez garenez, soldatek bizi-maila onargarri bat bermatu behar dute. Horregatik, soldataren zenbatekoa gizarte-prozesu konplexuen arabera da, non honako faktoreak aurkitzen ditugun, besteak beste: gizarte bakoitzean eta garai bakoitzean normalizat jotzen den bizi-maila, indarren arteko korrelazioa negoziazio kolektiboan eta alor politikoan, eta gailentzen diren balioak. Orduan ikusten dugu ekonomia baten soldata-maila zenbatekoetatik, prezioetatik eta eskaintza-eskari oreketatik haratago doazen aldagaiekin lotuta dagoela. Prozesu sozial eta politikoek ere badute beren eragina.

c) Soldata eskariaren faktore eta pizgarri gisa

Ikuspuntu keynestarretik, azpimarratu egiten da soldata gehienak kontsumoko gasturako erabiltzen direla eta horregatik direla eskari-iturria. Soldatak igotzean, kontsumo-ondasunen eskariaren areagotzea ahalbidetzen da eta horrek, aldi berean, enpresen jardueraren areagotzea dakar eta, halaber, enpleguaren hazkundera bultzatzen dezake.

Bestalde, adierazi izan da ere lan-jokabidea jasotako soldataren mendekoa dela. Soldata bidezkoa dela uste bada, burututako ahaleginarekin alderatuta, horrek

eragin positiboa izan dezake produktibitatean. Aldiz, justifikaziorik gabeko soldaten beherakadak produktibitatea murriztea eragin dezake.

Ikuspegi hauek soldaten beherakadak izan ditzakeen ondorio negatiboez ohartarazten gaituzte.

Hona hemen menperatu eta bereizi beharreko zenbait kontzeptu.

- Soldata nominala/soldata erreala: soldata nominala jasotako diru-kantitatea da; aldiz, soldata erreala soldata horrek dakarren erosteko ahalmena da. Horregatik, soldata erreala ari garenean, prezioen bilakaera zein izan den hartzen da kontuan. Soldata baten erosteko ahalmenaren bilakaera ezagutu nahi badugu, soldata erreala bilakaera aztertu beharko dugu.
- Soldata gordina/soldata garbia: soldata gordina enpresak egiten dituen ordainketa guztien guztizko zenbatekoa da eta soldata garbia langileek jasotzen duten zenbatekoa da. Beraz, soldata garbia da soldata gordina ken langilearen Gizarte Segurantzako kuotak eta ken PFEZa.
- Soldata geroratu Gizarte Segurantzari eta pentsio-funtsei egiten zaizkien enpresa-kotizazioak dira, langileen bizitza aktiboa amaitzean pentsio bat bermatzeko helburua dutenak.
- Soldataz kanpoko prestazioak eskulanaren truke jasotako diruzkoak ez diren ondasunak eta zerbitzuak dira: jantokiak, interes baxuko maileguak, ikasketetarako beka, etab.

3.4 Lan merkatuaren instituzioak

Ekonomian instituzioez ari garenean, eragile ekonomikoen arteko harreman sozial eta ekonomikoak arautzen dituzten legez, erabilere, ohiturez, usadioez eta arauz ari gara. Instituzio horiek formalak edo ez formalak izan daitezke. Banakoen eta taldeen jardun-eremua mugatzen edo auto-mugatzen dute. Azken batean, jokoaren arauak dira: gizartean onargarriak diren jokabideak ezartzen dituzte eta segurtasuna ematen diote banako ekimenari eta ekimen kolektiboari, ziurgabetasuna murrizten baitute. Instituziorik gabe ez dago merkatu-ekonomiarik.

Instituzioak ez dira diseinatutako zer edo zer, baizik eta bilakaera-prozesu baten emaitza. Agertu, aniztu eta hautatu egiten dira. Egonkorak eta sendoak dira, baina, era berean, denborak itxuraldatu egiten ditu ere. Dauden instituzioek beren funtzioak betetzeari uzten diotenean, eboluzionatu edo desagertzera ere iritsi daitezke. Harreman sozioekonomikoetan gertatzen diren eraldaketekin batera aldatuz doaz. Ekonomiaren zenbait ikuspuntutatik, kapitalismoaren krisi garrantzitsuak interpretatzen dira arkitektura instituzionalak baliozkoa izateari uzten dion eta beretik diseinatu behar den momentu gisa. Zentzu horretan, esan dezakegu ez dagoela baliozkotasun unibertsalik duen instituziorik, aldiz, ingurune eta momentu jakin batera egokitutako garapen instituzionala sustatu behar da.

Lan-instituzioen helburua lan-harremanak arautzea da, izatez gatazkatsuak baitira, kapitala eta lana ekoizpen-prozesuan sortzen den balioa banatzeko lehian aritzen direlako. Eginkizun hauek dituzte:

- Banakoen eta kolektiboan interesak bateragarri egitea ahalbidetzen duten gizarte-irtenbide gisa jardutea. Konpromisoak eta akordioak dira.
- Konfiantza eta gizarte-kohesioa sustatzea.
- Eragile ekonomikoen arteko lankidetzaren sustatzea, gatazkak murrizte aldera eta gatazken erradikalizazioa ekidite aldera.

Lan-instituzio nagusiak hauek dira: negoziazio kolektiboa, lan-araudia eta -legedia, enplegu-politikak (pasiboak eta aktiboak) eta gizarte-elkarrizketaren bidez lortutako akordioak.

Sindikatuak eta enpresaburuaren elkarrekin dira subjektu negoziatzaileak eta lan-harremanen edukia definitzea eta gobernuei eskaerak helaraztea dituzte helburu, lan-harremanekin lotutako alderdiak arautze aldera. Lan-kontratazioarako arauen, kaleratzeen, langileen kontingentzien aurreko babesaren (gaixotasunak, ezintasuna, zahartzaroa, langabezia, etab.) eta abarren ingurukoak izan daitezke. Gainera, estatuak ebazle eginkizuna du lan-gatazketan. Sare guzti honek osatzen du Lan Harremanen eta Giza Baliabideen Graduko ikasgai nagusietako bat.

4. Lana eta genero-ikuspegia

Gai honen epigrafean adierazi dugun moduan, lan-errealitatearen azterketa merkataritzaren ikuspuntutik jorratzen da batez ere, hau da, merkatutik igarotzen ez diren lan-jarduerak ez dira aztertzen. Hala ere, gure gizarteetan burutzen den lanaren zati garrantzitsu bat merkataritzaren alorretik kanpo geratzen da. Lan horren barruan hainbat mota daude, baina garrantzitsuena, bolumena eta ekoizpen-jardueraren garapenean duen garrantzitsua ikusita, etxeko lanak eta mendeko pertsonen zaintza-lanak dira. Gure gizarte patriarkaletan, lan horren zati handiena emakumeek egiten dute eta horrek eragina du emakumeen lan-munduko parte-hartzean eta emakumeek dituzten errenta-mailan eta ongizate-mailan. Etxeko lanen eta zaintza-lanen banaketa desberdina da gizon eta emakumeen artean dauden desberdintasunen azalpen nagusietako bat.

Banaketa desberdin hori etxeko lanen eta zaintzen alorrean erakunde publikoen aldetik eta gizon askoren aldetik dagoen erantzunkidetasunik ezarekin lotuta dago.

- Bizitza pertsonala eta lan-arloko bizitza bateragarri egitea eta erakundearen erantzunkidetasuna sustatzea helburu duten politika publikoak ez dira behar adina ausartak izan eta ez dute aurrekontu egokia jaso. Gainera, 2008ko krisiak atzerakadak ekarri ditu alor hauetan.
- Gizonen paperari dagokionez, alor pribatuan lan gehiago hartuz joan diren arren, ezin da etxeko lanen eta zaintza-lanen erantzunkidetasunera edo berdintasunezko banaketara iritsi garenik esan, Denboraren Erabileraren inguruko Inkestek adierazten duten moduan³.

Errealitate honen azterketa alde batera uzteak dakar jarduera hauek aberastasunaren eta ongizatearen areagotzean duten ekarpena kontuan ez hartzea. Horregatik, ikastaro honetan zehar, gure asmoa genero-perspektiba barne hartzea da. Horretarako, gizonen eta emakumeen egoera eta esperientzia desberdinak adierazi beharko ditugu desberdintasun hori analisirako esanguratsua denean.

Genero ikuspegi hau zeharkako elementua izanik, ezinbestekoa da eskertzea gure inguruan genero eta lanaren arteko harremanak ikertzen ari direnen lana. Gainera, ikerketa horiek bereziki emakumeek jorratu dituztela ere azpimarratu behar da. Horregatik, mila esker euren lanagatik Mertxe Larrañaga, Sara de la Rica, Mari Luz de la Cal, Elena Martínez tola, Ainhoa Vega, Yolanda Jubeto, Cristina Carrasco, Carme Alemany, Cristina Borderías, Lucía Gorjón, María Ángeles Duran eta lan-harremanen eremuan genero-ikuspegia ardatz gisa duten gainerako ikertzaileei.

³ Estatistika-institutu gehienek burutzen dituzte inkesta hauek. Ordaindutako eta ordaindu gabeko lanari ematen diogun ordu-kopuruari buruzko informazioa eskaintzen digute, bai eta denbora hori adinaren, sexuaren, egoera profesionalaren eta abarren arabera banatzeko moduari buruzkoa ere.

5. Oinarritzko bibliografia

De La Cal Barredo, Maria Luz y Madeleine Huber (2017) *Una nueva cultura del trabajo para un mercado laboral y unas sociedades inclusivas*, Zerbitzuan, nº64: 33-44.

De La Rica Sara, Gorjón Lucía, Vega Ainhoa (2019) *Genero-arrakalak Euskadiko lan-merkatuan*. ISEAK document <https://iseak.eu/documentos/brechas-de-genero-en-el-mercado-laboral-en-euskadi/>

Larrañaga Sarriegui, Maria Mercedes; Jubeto Ruiz, Yolanda; De La Cal Barredo, Maria Luz (2012) *La diversidad de los modelos de participación laboral de las mujeres en la UE-27*. Lan Harremanak, 25: 291-329.

Martinez Tola, Elena y De La Cal Barredo, Maria Luz (2017) *Una aproximación territorial y de género al desempleo durante la crisis. El caso de los municipios vascos*. Lurralde, nº40: 247-272.

Recio, A. (1997) *Trabajo, personas y mercados. Manual de Economía Laboral*. Icaria. Bartzelona. 1. eta 2. kap.

Ruesga, S. M. (2014) *Economía del trabajo y política laboral*. Pirámide. 1., 4. eta 5. kap.

